

Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. maila: 2. saria

HIPOPOTAMOA ETA TXIMELETA

Uxue Gómez Basurto



Baziren behin Hipo hipopotamoa eta Eleta tximeleta. Biak ala biak leku zoragarrietan bizi ziren. Hipopotamoa ur asko eramaten zuen ibai zabal eta oparo batean bainatzen eta freskatzen zen goizez zein arratsaldez. Tximeleta belardi xarmagarri batean lorez lore ibiltzen zen jostari, eta janari goxo-goxoa bilatzen zuen egunero.

Ez bata eta ez bestea, ordez, ez zeuden pozik. Hipok oso potolo eta astuntzat zuen bere burua. Eletak, berriz, argal eta arinegitzat. Ez ziren zoriontsu horrela.

Goiz batean, hortzak garbitzen ari zirela, Zorionaren Iratxo alaia agertu zitzaien komuneko ispiluan. Eta haxe esan zien:

- Egun on. Ni Iratx Iratxoa naiz eta zoriona topatzen laguntzen dut. Zuek zoriontsu zarete ala zerbait falta duzue zoriontsu izateko?

Bai Hipok bai Eletak laguntza eskatu zioten. Hipok mehetu nahi zuen, pisua galdu. Eletak, berriz, pisu gehiago nahi zuen. Iratxek esan zien:

- Ados, orduan, egun baterako trukea egingo dugu. Eleta potolotuko da eta Hipo nabarmen finduko da. Bihar etorriko naiz eta esango didazue gusturago zaudeten itxura berriarekin.

Hurrengo egunean, esnatu zirenean esandakoa bete zen: Hipo nabarmen zegoen argalduta eta Eleta, berriz, nabarmen potolotuta. Biak oso pozik zeuden eta hala adierazi zioten elkarri. Hipo zitzu bizian abiatu zen erreka eta Eleta loreen gainean ibiltzera. Baina, egoera ez zen izan haiek uste zuten bezain ona: Hipo errekan

sartu zen, baina ur korronteak eramane zuen pisu gutxi zuelako. Eletak, berriz, lore gainean jartzean zapaldu egiten zituen eta ezin zuen jana aprobetxatu.

- Ia ito egin naiz! – esan zuen Hipok, ozta-ozta errekaen ertzera iritsi zenean.

- Kaka zaharra, ezin dut ezer jan! – oihukatu zuen Eletak.

- Aldaketa hau ez zait gustatu! – esan zuten biek batera Iratx agertu zenean.

- Lehen ez zeundeten gustura eta orain, aldaketarekin, ere ez. Jakin behar da konformatzen daukagunarekin eta garenarekin – erantzun zien Iratxek.

- Mesedez, mesedez, lehengo egoerara itzuli nahi dugu, ginen bezalakoak izateko – eskatu zioten biek batera.

Iratxek aukera eman zien hasierako egoerara itzultzeko. Hipo berriro, potzolo-potzolo, patxadan egoten zen errekan, korronteak eramateko arriskurik gabe. Eleta, fin-fin, lorez lore ibil zitekeen, zanpatzeko beldurrik gabe. HORTIK AURRERA OSO POZIK BIZI IZAN ZIREN BAIKOITZAK ZEUKAN BIZIMODUAREKIN, KEXARIK GABE.

